

# POLTSIKO ANTZERKIAREN 31. JAIALDIA

## 2022 urteko maiatza 5-22

- **Poltsiko Antzerki Jaialdia maiatzeko hiru astetan zehar egingo da eta emanaldiak ostegunetik igandera izango dira.**
- **Berrikuntza nagusizat, jaialdia tabernetara itzuliko da, aurreko edizioa ia osorik aire zabalean kokatutako karpetan egin ondoren.**

Donostia Kulturak, kultur etxe sarearen bitartez, Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiaren beste edizio bat aurkezten du. Hogeita hamaikagarrena da maiatzaren 5etik 22ra bitartean egingo den jaialdia.

Formatu txikiko antzerki ikuskizunen askotariko proposamenak osatzen dute programa, hiriko antzerki programazioa herritarrei eta batez ere publiko gazteenari hurbiltzeko helburuarekin.

Jaialdi honen xede nagusia da bariedade antzerkia zabaltzea bai haren ohiko jarraitzaileei, baita tradiziozko espazio eszenikoetara joateko ohiturarik ez duen publikoari ere. Poltsiko Antzerki Jaialdiaren bereizgarria da, antzezpenetarako oso ohikoak ez diren agertokietan saioak programatzea. Alabaina, agertoki horiek publikoarengandik hurbil dauden espazioak eta lekuak dira (adibidez, tabernak), eta, gainera, ideia eta formatu berriekin esperimentatzeko bidea ematen dute.

Hori horrela medio, iaz Covid19aren eragin handiak bereziki kaltetu zuen jaialdia. Ostalaritza-jardueran indarrean zeuden osasun-mugek, pandemiak gehien baldintzatu duen sektoreetako bat, jaialdi berezi bezain erakargarri hau ohiko espazioetan antolatzea eragotzi zuten.

### KULTUR EKINTZA ACCIÓN CULTURAL

Konstituzio Plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 483 840 E. [kulturekintza@donostia.eus](mailto:kulturekintza@donostia.eus)  
[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

Hala eta guztiz ere, antolakuntzak ez zuen bertan behera utzi eta udazkenera atzeratzea erabaki zuen, egoera hobea izango zelakoan. Azkenik, jaialdiak berezkoa duen izakera informalarari eutsi ahal izateko, egoerara egokitzeko neurriak hartzea erabaki zen. Programazioaren zatirik handiena aire zabalean kokatutako karpetan eskaini ondoren, 30. edizioa benetan arrakastatsua izan zen.

30. edizioaren ondoren ikuslego finkoa duen ekimena da eta urtero jarraitzaile gehiago ditu. Jaialdia kultur etxeen sarearen eguneroko lanaren adibide argia da, hiriko kultur programazioei bestelako begirada ematen dietena, herritarrengandik hurbil dauden ekipamenduak baitira.

### **Poltsiko Sorkuntza saria.**

Edizio honetan ere, Euskarazko Poltsiko Antzerki Sorkuntzaren XII. deialdiako irabazleak hartuko du parte. Poltsiko Antzerki Sorkuntzaren deialdia Donostia Kulturak antolatzen du, Euskara Zerbitzuarekin eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin lankidetzan.

**Piszifaktoria Ideien Laborategiaren *Ivanka*** antzezlanak izan da irabazlea.

Ekimen honen xedea, Poltsiko Antzerkiaren eta, oro har, formatu txikikoaren esparruan euskaraz dagoen eskaintza urria bultzatzea da.

### **PROGRAMAZIOA**

Donostiako Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiak programa zabala eskaintzen du edizio berri honetan, eta tartean bi estreinaldi izango dira, aipatutako Antzerki Sorkuntzako ***Ivanka*** lan irabazlea eta Andoni Mutiloaren ***Sex Sua***. Era berean, Félix Alboren ***El pueblo de los Mellados***, Estefanía de Paz Asínen ***La Reina del Arga zirkoa***, Alazne Etxeberriaren ***De esto tambien se sale*** eta Javier Merinoren ***Diálogos con mi barriga***, besteak beste.

Antzerkia, umorea, magia, zirkoa, bakarrizketak, musika... Horiek izango dira, hain zuzen, jaialdi honen osagai nagusiak, eta gaurkotasuneko gaiak jarriko dira oholtza gainean, kritika eta urratzea nahasita, bizi dugun munduari buruzko ikuspegi desberdina eskaintzeko.

Doka aretoan egingo den itxiera ekitaldian Donostiako Xentimorik gabe konpainiaren **Gu Primer!**, Virginia Imazen **Clownclusiones** eta Yogurinha Borovaren **Playlist** ikusi ahal izango dira.

Betiko moduan, bi hizkuntza ofizialen erabilera eta emakumeen presentzia nahiko parekatuak izatea lortu da. Guztira **14** konpainiek **16** ikuskizen eskainiko dituzte **34** emanaldietan eta horietatik **17** euskaraz izango dira eta gainerako **17**ak, gazteleraz. Emanaldiak hiriko **24** espaziotan banatzen dira

### Programa eta agertokiak

Maiatzaren 5etik 22ra, emanaldiak eskainiko dira hiriko hainbat taberna eta espaziotan, beti ostegunetik igandera. Ikuskizun guztietarako **sarrera doan** izango da eserlekuak bete arte eta unean-uneko segurtasun eta osasun neurriak beteko dira. Honako hau izango da 2022ko edizioaren programazioa:

#### La Reina del Arga

Estefanía de Paz Asín

Zirkoa

Gaztelania

Arte, teknika eta lengoaia artistiko ezberdinak uztartzen dituen ikuskizuna da, hala nola narrazioa, interpretazioa, objektuen antzerkia, ilusionismoa, arte plastikoak, arkakusoen zirkoa, clowna eta zirkoa. Zirkuko arteen historiaz eta funanbulismoa bezalako teknikez hitz egiten digu, eta Remigia Echarren, Argako Erregina, ezagutarazten.

**Etxarriene**, Maiatza **5** Mayo, **19:00**

**Norta**, Maiatza **6** Mayo, **20:00**

**Egiatarra Jubilatuen Ekartea**, Maiatza **13** Mayo, **19:30**

#### De esto también se sale

Alazne Etxeberria

Bakarrizketa

Gaztelania

Mari Luz hegaldi-zerbitzari oso berezia da. Ez du herdoilik ahoan tabuak hausteko, ezta esperimentatzea egokitu zaizkion balentriak eta gorabeherak kontatzeko ere. Eskutik helduta eramango gaitu ahazten zaila izango den bidaia batean. Eutsi, bagoaz eta!

**Vía Fora**, Maiatza 8 Mayo, 19:00

**Ei Muro**, Maiatza 15 Mayo, 19:00

**Mamistegi**, Maiatza 19 Mayo, 19:30

### **Ivanka Estrenaldia**

Piszifaktoria Ideien Laborategia

Bakarrizketa

Euskara

Poltsiko Sorkuntza Lehiaketaren aurtengo edizioko irabazlea. Ivanka gurera heldu den ekialdeko inmigrante gajoa da. Bere kontakizunari esker jakingo dugu zergatik alde egin behar izan zuen bere herrialdetik eta zer aurkitu zuen hemen. Gure gizartearen hainbat alderdi ilunen erradiografia deserosoa egingo digu: krisi ekonomikoa, gentrifikazioa, matxismoa...

**Kontadores**, Maiatza 7 Mayo, 19:00

**Le Bukowsky**, Maiatza 8 Mayo, 19:00

**Etxarriene**, Maiatza 14 Mayo, 19:00

**Museum Cemento Rezola**, Maiatza 20 Mayo, 20:00

### **Magia parrastan**

Imanol Ituiño

Magia

Euskara

Zer da?, txori bat?, hegazkin bat?, Superman? Ez! Magia da! Baina...zer ote da *Magia parrastan*? Horixe da ikuskizun honetan ikusiko duzuen, magia parrastan, etengabe, a tutiplen! Kartek, bolatxoek, sokek, agerpenek eta desagerpenek hartuko dute protagonismoa. Ikuskizun parte-hartzaile, dinamiko eta ganberroa.

**Mamistegi**, Maiatza 5 Mayo, 19:30

**Scanner**, Maiatza 12 Mayo, 20:00

### **Diálogos con mi barriga**

Javier Merino

Bakarrizketa

Gaztelania

“Garapen jasagarria” guztion ahotan dabilen honetan, Javier Merinok “garapen irrigarria” aldarrikatzen du etorkizunari eta egokitzen zaigunari aurre egiteko errezeta gisa, benetan behar baitugu.

**El Parque**, Maiatza **12** Mayo, 19:30  
**Next Taberna**, Maiatza **22** Mayo, 19:00

### **Pronoia**

Virginia Imaz

Klown / Clown

Gaztelania

Pronoia: Paranoiaren aurkako egoera mentala, non pertsona ziur dagoen unibertsoak pertsonen alde konspiratzen duela. Pauxa pailazoak genero-indarkeriari buruzko hausnarketa egiten du, eta, oro har, giza harremani buruzko kezka partekatzen.

**Bikutz**, Maiatza **7** Mayo, **20:00**

### **Sex o no sex**

Virginia Imaz

Klown / Clown

Gaztelania

Klown parodia. Pauxa pailazoak bizitzari, heriotzari eta sexuari buruz galdetzen dio bere buruari. Proposamen ludiko honek sexuarikiko ditugun ohiturak –edo ohitura ezak– erreferente bezala hartzen ditu, betiere genero ikuspegitik.

**Botanika**, Maiatza **8** Mayo, **18:30**

### **El pueblo de los Mellados**

Félix Albo

Bakarrizketa

Gaztelania

Lau hilketek herri oso baten ohiko bizitza asaldatzen dute. Bertako Guardia Zibila, ofizial batekin eta praktikan dauden bi agenterekin batera, parerik gabeko ikerketa bat egiten ari dira, bertakoak are gehiago aztoratzen dituenak.

**Ardube**, Maiatza **13** Mayo, **19:00**

**Altxerri**, Maiatza **14** Mayo, **19:30**

**Doka**, Maiatza **15** Mayo, **20:00**

### **Luze edo Motz**

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai

Binakako bakarriketa

Euskara

*Bakean dagoena bakean utzi* emankizunaren haritik jarraituz, ikuskizun honetan generoa hartuko du bikote honek umoregai, gure gizartea zertan luze eta zertan geratzen den motz galdetzeko. Horretarako hilekoa, menopausia, ligatzeko teknikak eta sexua izango dituzte hizpide, besteak beste. Kritika eginez, deseraikiz eta barre eginez bazterrak zirikatzen jarraitzeko bueltatu dira!

**Haritza 22**, Maiatza 5 Mayo, **20:00**

**Botanika**, Maiatza 19 Mayo, **18:30**

### **Kidam Magoa**

Magia

Euskara / gaztelania

### **Sekreturik ez**

Asier Kidamek *Sekreturik ez* aurkezten digu, helduentzako ikuskizuna. Parte-hartzea, harridura eta umore fina ziurtaturik daude.

**Aveniu**, Maiatza 19 Mayo, **19:00**

### **Sin secretos**

**La Taberna**, Maiatza 20 Mayo, **19:30** Sin secretos

### **Sex Sua** Estrenaldia / Estreno

Andoni Mutiloa

Musikala / Musical

Euskara

Ligatzeko gogoz zabilta, baina aplikazioekin ez zara ondo moldatzen? Bertako komunikazio kodeak ulertzeko zailtasunak dituzu? Zure antsietate mailak gora egin du? Ez kezkatu, zuk behar duzuna asmatu dudalako: ligatzeko aplikazioetan ez galtzeko gida, Atik Zra.

**Igeldoko Ikastetxea**, Maiatza 14 Mayo, **19:30**

**Le Bukowsky**, Maiatza 15 Mayo, **19:00**

**Ardube**, Maiatza 19 Mayo, **19:00**

**Ei Nido**, Maiatza 20 Mayo, **20:00**

## Y tan panchas

Laia Sales & Jimena Cavalletti

Kontzertu komikoa

Gaztelania

Los Panchos hirukote musikalaren bertsio ezezagunak interpretatzen dituzte aktoreek. Haien abesti argitaragabeak, emakumeen inspirazio anonimoak eta lapurtutako zenbait gauza azalduko dizkigute. Gezur handiak, perkusio txikiak, uste sakonak, pijaman eta kamisoian melodia alaiak bolero, cumbia eta son erritmoan.

**Altxerri, Maiatza 21 Mayo, 19:30**

## Carmen-en zai

Nerea Arriola

Bakarrizketa

Euskara

Dolores Mujika *Do/ox* donostiarra, bere lagun Carmenekin poltsiko antzerkia ikusteko geratuta dago. Pozik dago aurten ere antzerkia ikusteko aukera duelako. Baina *Do/ox*-en ondoko aukia hutsik dago. Iritsiko ote da Carmen zitarra?

**Garai. Maiatza 5 Mayo, 21:00**

**Aitona-amonen Etxea (Intxaurrondo), Maiatza 15 Mayo, 18:30**

**Via Fora, Maiatza 22 Mayo, 19:00**

## FESTA

Askotarikoa

Euskara & gaztelania

Poltsiko Antzerkiaren 31. Jaialdiaren amaiera ekitaldia. Hainbat artisten saioak izango ditugu: **Gu Primer! Inazio** eta **Ramon** Parisen bizi dira, Artistaren Etxean. Bertan lanean hasi berri den **Nereak**, "programa" berezia prestatu du gure bi lagunentzat.

**Virginia Imaz** Poltsiko Jaialdiaren **Clownklusioak** inprobisatzen

Eta amaitzeko, **Yogurinha Borova** eta bere **Playlist** paregabearekin agurtuko gara.

**Doka, Maiatza 22, 19:00**

## Egunez egun

Maiatza **5** osteguna:

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai – Luze edo Motz – Haritza 22 (Amara) 20:00

Maiatza **5** osteguna:

Estefanía de Paz Asín – La Reina del Arga – Etxarriene (Martutene) 19:00

Maiatza **5** osteguna:

Nerea Arriola – Carmen-en zai – Garai (Antigua) 21:00

Maiatza **5** osteguna:

Imanol Ituiño - Magia parrastan – Mamistegi (Aiete) 19:30

Maiatza **6** ostirala:

Estefanía de Paz Asín – La Reina del Arga – Norta (Gros) 20:00

Maiatza **7** larunbata:

Virginia Imaz – Pronoia – Bikutz (Larratxo) 20:00

Maiatza **7** larunbata:

Piszifaktoria Ideien Laborategia – Ivanka – Kontadores (Bidebieta) 19:00

Maiatza **8** igandea:

Alazne Etxeberria – De esto también se sale – Vía Fora (Amara) 19:00

Maiatza **8** igandea:

Piszifaktoria Ideien Laborategia – Ivanka – Le Bukowski (Egia) 19:00

Maiatza **8** igandea:

Virginia Imaz – Sex o no sex - Botanika (Erdialdea) 18:30

Maiatza **12** osteguna:

Javier Merino – Diálogos con mi barriga – El Parque (Intxaurreondo) 19:30



Maiatza **12** osteguna:

Imanol Ituiño - Magia parrastan – Scanner (Sagües) 20:00

Maiatza **13** ostirala:

Estefanía de Paz Asiaín – La Reina del Arga – Egiatarra. Jubilatuen Elkarte (Egia) 19:30

Maiatza **13** ostirala:

Félix Albo – El pueblo de los Mellados – Ardube (Loiola) 19:00

Maiatza **14** larunbata:

Piszifaktoria Ideien Laborategia – Ivanka – Etxarriene (Martutene) 19:00

Maiatza **14** larunbata:

Andoni Mutiloa – Sex Sua – Igeldoko Ikastetxea (Igeldo) 19:30

Maiatza **14** larunbata:

Félix Albo – El pueblo de los Mellados – Altxerri (Alde Zaharra) 19:30

Maiatza **15** igandea:

Andoni Mutiloa – Sex Sua – Le Bukowski (Egia) 19:00

Maiatza **15** igandea:

Nerea Arriola – Carmen-en zai – Aitona-Amonen Etxea (Intxaurreondo) 18:30

Maiatza **15** igandea:

Félix Albo – El pueblo de los Mellados – Doka (Antigua) 12:30

Maiatza **15** igandea:

Alazne Etxeberria – De esto también se sale - El Muro (Sagües) 19:00

Maiatza **19** osteguna:

Kidam Magoa – Sekreturik ez - Aveniu ( Loiola Erriberak) 19:00

Maiatza **19** osteguna:

Andoni Mutiloa – Sex Sua – Ardube (Loiola) 19:00

Maiatza **19** osteguna:

Alazne Etxeberria – De esto también se sale - Mamistegi (Aiete) 19:30

Maiatza **19** osteguna:

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai – Luze edo Motz – Botanika (Erdialdea) 18:30

Maiatza **20** ostirala:

Andoni Mutiloa – Sex Sua – El Nido (Herrera) 20:00

Maiatza **20** ostirala:

Kidam Magoa – Sin secretos – La Taberna (Egia) 19:30

Maiatza **20** ostirala:

Piszifaktoria Ideien Laborategia – Ivanka – Museum Cemento Rezola (Añorga) 20:00

Maiatza **21** larunbata:

Laia Sales & Jimena Cavalletti – Y tan panchas - Altxerri (Parte Zaharra) 19:30

Maiatza **22** igandea:

Javier Merino – Diálogos con mi barriga – Next (Jolastokieta – Altza) 19:00

Maiatza **22** igandea:

Nerea Arriola – Carmen-en zai – Via Fora (Amara) 19:00

Maiatza **22** igandea:

Xentimorik gabe – Gu Primer! Virginia Imaz - Clownclusioak Yogurinha Borova - Playlist  
Doka (Antigua) 19:00

Informazio gehiago

**kulturekintza@donostia.eus**

**(943 48 38 40)**

**KULTUR EKINTZA ACCIÓN CULTURAL**

Konstituzio Plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 483 840 E. kulturekintza@donostia.eus

**www.donostiakultura.eus**